


Ubidea - Zeanuri 11,7 Km



Kokapen geografikoa

Gorbeiarekiko dugun maitasunak, mendikate hau berriro esploratzera ekarri gaitu. Urtero bezala, zonalde bat aukeratu dugu, bizkaiko partean alegia.

Mendikate honen jatorria orain dela 100 milioi urte baino gehiagokoa da, itsasoak estaltzen zuen garaikoa. Gerora, material horiek tolestu eta altxatu ziren eta milaka urtetan izaki bizidunak naturgune hori kolonizatuz joan ziren: pagoek, haritzek, ametzek, arteek, haltzek... hartu zituzten lur haiek baso zabalak eratuz, eta oraindik eta Arabako aldean baso horien lagin bikainak gordetzen dira. Ziurrenik, Gorbeiaiko gailurreko eguraldiak ez zuen zuhaitzik hazten utzi eta, hartara, goi mendiko larrea eratu zen. Zenbait gunetan lurraren ezaugarri bereziek eta euri ugariak guneko hezeak sorrarazi zituzten, hala nola, lokazti bakanak, Altubeko hezeguneak edo jada desagertu den Saldropoko zohikaztegia. Itxina eta Aldamineko harkaitz mendiguneetako haitz itxuraz biluzien gainean landare bitxiak hazi ziren, hain ingurune ez-abegitsuan bizitzera egokitutakoak

Fauna eta landareria

Oreina 1957an sartu zuten Gorbeiaiko Parke Naturalean eta ordutik asko hazi da animalia horren populazioa. Orro egiterakoan, araldian eta ugalketan, arrek beren

marrua entzunarazten dute lehiakideak uxatzeko. Basoetan barrena animalia espezie asko aurki daitezke; basoko harrapariak (aztoea, gabiraia, sugezale europarra, belatza) eta haitzetakoak (belatz handia, sai zuria), eta ugaztun haragijaleak (ipurtatsa, basakatua, lepazuria), esate baterako. Lepahoriak aipamen berezia merezi du, Euskal Autonomia Erkidegoko koloniarik garrantzitsuenetakoa Gorbeian dago eta. Muxar grisa, zuhaitz zaharren zuloguneetan babesten den karraskaria, ere nabarmendu beharrekoa da. Campaña de senderismo Arraba – Paketxe Gorbea Fundación Estadio Fundazioa 20-12-2014 Bestalde, ur-zozoa ibaien (Baia, Altube, Subialde) goiko ibilbideetan bizi da, ur gardenetan. Urmael eta leku hezeetan, berriz, anfibioak ugari daude, baso-igel jauzkaria, basoigel iberiarra eta gailurretako uhandrea, tartean. Gorbeian abeltzaintza da nagusi. Azienda handia (latxa ardia, behorra, behia) ibili ohi da bertan larrean, Arraba eta Egiriñao zelaietan eta, monumentu megalitikoek egiaztatzen duten gisan, antzinatik bertan kokatutako kortetan. Alabaina, basoak ere badu garrantzia. Bertan baso hostogalkor ugari daude, batez ere Arabari dagokion lurraldean. Azpimarratzekoak dira pagadiak (flora-osaketa anitza dutenak) ameztiak, haritz kandugabe eta kandudunek osatutako hariztiak, erriberetako baso estuak... Pagadiak hedadura bikaina dute eta horietako bat Altube inguruko masa zabala dugu.

Datu historikoak

Inguruko herrietako abeltzain eremua izan da historikoki. Gorbeian larreak gailurretaraino heltzen dira, goi mendiko larreak sortuz. Hauetan hain ezaguna den den Latxa ardia hazi egiten da, baita haragirako hazi egiten diren behiak ere. Aintzinan baserrietarako lanak egiteko hazten ziren zaldiak ikus zitekeen, gaur egun haragirako zainduak. Pagadietako egurra landu egiten zen ere, etxeak berotzeko egurra landuz eta baita ikatza egiteko ere. Adibide giza eta bizi garen data hauek aprobetxatuz, Olentzero daukagu, leiendak bertako ikazkina zela dioela.

IBILBIDEA

0 Km. / 0 h. 0. Ubideako herritik hasiko dugu ibilbidea ipar-mendebaldeko norabidean, bide eroso batetik.

2 Km. / 20 min. Bide-gurutze batera helduko gara baina norabide berean, gure bideari ekingo diogu besteak albo batera utziaz.

8 Km / 2.15h. Zeanuriko ingurunean bide asko topatuko ditugu, gu Ubidetik ekarritako gure bidetik jarraituko dugu.

10 km / 3 h. Zeanurira iritsiko gara erlajatzeko denborarekin. Hemen Estadiora bueltako autobusa hartuko dugu.